



BARREN
TOKIKOM



Arte gozoa

EUSKALDUNA

HERRITARRA

HEZKUNTZA EREDU PROPIOA

ERALDATZAILEA

Herritik sortuak eta herriarentzat

Kooperatiba

Auzolana eta elkartana

Euskal Curriculum

Kompetentzietan oinarritutakoa

Aitzindaritza Pedagogikoa

Prestakuntza eta aholkularitza

I+G+B

Ikasmateriala gintza propioa

Bikaintasuna ikasleen hobekuntzan

Euskal Kultura

Euskal Herritik mundura

Euskararen ardatzuriko eleaniztasuna

Aurre-matrikulazioa:
urtarrilaren 18tik 29ra



Ikastola

etorkizunerantz elgoibar ikastola
hezkuntza elgoibar@elgoibarikastola.eus
eraldatzen 943 74 44 41
www.elgoibarikastola.eus



EDURNE IZAGIRRE

Psikologoa



Urte "berri" on!

Bolo-bolo gabiltza elkarri urte berria zoriontzen egun hauetan, baina bai neuregan eta bai ingurukoengan berdinean jarraitzeak sortarazten digun nekea eta etsipena sumatzen dut.

Eta psikologia ikasketetan lehen urtean ikasitako kontzeptu bat datorkit burura: etsipen ikasia (*indefensión aprendida*). Arratoiekin esperimenta-






tzen zuten estimuluekiko erantzuna, eta ziztada jolasen zebilela emanez gero jolasteari uzten zioten ziztada ekiditeko; ondoeza edo arriskua sumatzean hau ekiditeko estrategiak jartzen zituzten martxan. Baina batzuek modu aleatorioan ziztadak ematen zizkieten, jokaera aldaketak ez zuelarik inolako eraginik arriskua ekiditeko garaian. Honela, iristen zen momentu bat egoera kontrolatzeko saiakerak egiteari uzten ziotela; egiten zutena egiten zutela ziztada berdin jasoko zutela ondorioztatzean etsipenak hartzen zituen.

Hauxe da sumatzen dudana; komunikabideetan arauak hausten dituztenak ageri dira, baina nik inguruan jende ar-

duratsua ikusten dut, interakzio soziala nabarmen murriztu duena guztion osasunaren alde. Bigarren olatuaren gorenarene ere ez ziren EAE osorako ditugun 200 oheak bete, eta hau lorpen kolektibo gisa ikusi, balioztatu eta ospatu beharrean hirugarren olatuaren arriskuak kutsatzen du gure egunerokotasuna, edozein momentutan etor daitekeen konfinamenduaren mehatxuak... eta han eta hemen entzuten dut... "hau tristura!"

Nahiz eta berritik ez duen ezer ekarri urtarrilak, eta 2020a ohikoak diren eta urtea aurrera doala adierazten diguten mugarririk gabe pasa behar izan dugun, osa dezagun bizirik gaudela, kanturik gustukoena geure gelan jarri eta bakarrik dantza eginez eta abestuz bada ere!

"Nahiz eta berritik ezer ez duen ekarri urtarrilak, eta urtea aurrera doala adierazten diguten mugarririk gabe pasatu behar izan dugun 2020a, ospa dezagun bizirik gaudela"

 <p>BARREN</p> <p>ARGITARATZAILEA:</p>  <p>ELGOIBARKO IZARRA Berkhaztearen Topagunea</p>	<p>Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR 943 744 112</p> <p>Publizitatea: 943 743 704</p> <p>barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Irizio, Hitz eta klik eta eskuizak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA Zaloea Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIA Amaia Arrizabalaga KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>ELGOIBAR UDONIA AYUNTAMIENTO</p> <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
---	---	--



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► **OKERRAK ZUZENTZEN**

Joan zen asteko alean oker eman genuen Mendaroko Udalaren aurrekontuaren inguruko albistea. Aurtengo aurrekontua 2.764.000 eurokoa izango da, 2020koa baino 64.000 euro handiagoa.

BARREN

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENEan edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduniko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelaz datarren eskutitzik argitaratuko



Mila esker zuen konfiantzagatik!

MERKEALDIA ETXeko EHUNGINTZANI!
Izarak, edredoiak, ohazalak, nordikoak, mantak...



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



ARAMBURU
BITXIDENDA

San Frantzisko, 26 Tel./faxa: 943 742 535

URTERO BEZALA, BITXI DENDAN ZOZKETA EGIN DUGU. ZENBAKI IRABAZLEAK ETA ORDEZKOAK HAUEK DIRA:

<p>1. SARIA 250 €-ko bonua bitxi dendan gastatzeko</p> <p>Zbkia.: 1.704 Ordezko zbkia.: 1.145</p>	<p>2. SARIA 250 €-ko bonua bitxi dendan gastatzeko</p> <p>Zbkia.: 556 Ordezko zbkia.: 365</p>
---	---

Eremu laranjan sartuta dago Elgoibar, eta Mendarok berdean jarraitzen du

Egoera epidemiologikoa “kezka-rria” da, eta kutsatze kopuruak gora egiten duela ikusita, neurri berriak iragarri zituen astelehenean Eusko Jaurlaritzak. Eguaztenean sartu ziren indarrean LABlren aholku batzordeak Araba, Gipuzkoa eta Bizkairako hartutako neurri berriok. Tartean, abendutik indarrean zeuden neurri batzuk gogortzea erabaki dute, batez ere mugikortasunarekin lotutakoak, eta beste batzuk bere horretan laga dituzte, tartean ostalaritzari eragiten dioten neurriak eta etxeratze agindua. Baina, badira, arindu dituzten neurriak ere. Adibidez, eskola kirola berriro martxan jartzeko aukera eman dute, eta joko eta apustu etxeak zabaltzea baimendu. Hona hemen neurriak, puntuz puntu:

Gogortu dituzten neurriak

- ◆ Probintzia, muga. Bihartik aurrera eta gutxienez otsailaren 1a arte, ezingo da norbera bizi den lurraldetik irten, eta ezin izango da beste probintzia batera joan. Ondorengo kasuetan barririk irten ahal izango gara Gipuzkoatik: osasun arrazoiegatik, lan egiteko, ikasteko, menpekotasun bat duten pertsonak edota haurrak eta edadetuak zaintzeko, eta jarduera profesionalak egin ahal izateko.
- ◆ Azken hamalau egunetako intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 500 positibo edo gehiagokoa duten herrietatik ezingo da irten, ezta alboko herrira joateko ere Semaforo gorrian dauden herrietatik ezinbestekoetarako bakarrik irten ahal izango dira. Azken hamalau egunetan 100.000 biztanleko intzidentzia-tasa 500 positibotik gora duten 5.000 biztanletik beherako herrien kasuetan, Jaurlaritzak tokian tokiko egoera aztertuta erabakiko du herri horiek itxi edo ez. Astelehenero eta eguenero eguneratuko dute itxita egongo



diren udalerrien zerrenda.

- ◆ 150 metro koadrotik gorako merkataritza-establezimenduetako edukierak %40 murriztu dituzte, eta 150 metro koadrorainoko azalera dutenen edukierak %60koa izan beharko du gehienez.

Mantentzen dituztenak

- ◆ Gehienez sei pertsona bildu ahal dira, orain arte bezala.
- ◆ Etxeratze agindua. 22:00etatik 06:00etara ezingo da kalean ibili.
- ◆ Tabernek orain arteko ordutegia izango dute. 20:00etan itxi beharko dute, eta ezingo dute 6:00ak aurretik zabaltu. Jatekoa etxera eramateko zerbitzua 22:00ak arte egongo da zabalik. Barran ezingo da kontsumitu, eta kontsumitzeko jarri egin beharko da. Terrazak osorik bete ahal dira, baina taberna barruak erdira bakarrik. Eremu gorrian dauden herrietan, baina, ostalaritza itxita egongo da, orain arte bezala.

- ◆ Merkataritzak eta kultura jarduerak 21:00etarako amaitu beharko dira.
- ◆ Kultur aretoetako gehieneko edukiera %35ean mugatu dute.
- ◆ Musika eta ahots-entsegu ez-profesionalak egitea debekatuta dago.

Malgutu dituzten neurriak

- ◆ Eremu gorrian ez dauden herrietan eskola kirola martxan jarri ahal izango dute berriro, baina bakarrik entrenamenduetarako. Entrenamenduak gehienez sei laguneko taldetan antolatuta beharko dituzte eta aldagelak ezingo dituzte erabili.
- ◆ Joko eta apustu etxeak zabaltu dituzte, ostalaritza-sektoreari aplikatzen zaizkion neurrietan.
- ◆ Profesionalak ez diren dantza taldeek ere izango dute entseguak egiteko aukera. Antzerki jardueretarako indarrean dauden baldintza berberetan egin ahal izango dituzte entseguak.

Hemen bertako 400 bat zuhaitz landatuko dituzte bihar Zirardamendi inguruan

Biodibertsitatea eta gure basoen kontserbazioan lanean diharduen Lurguia fundazioko kideek hemen bertako 400 bat zuhaitz landatuko dituzte



bihar Elgoibarren, Zirardamendi inguruan. Urdaibai ingurua da beraien lan-eremu nagusia, baina azkenaldian esparru hori zabaltzen dihardute, eta honakoan Elgoibarren egingo dute zuhaitz landatzea. Morkaikok bat egin du ekimen honekin, eta herritarrei dei egin diete landaketan parte hartzeko. 16 urtetik gorakoek eman dezakete izena, eta antolatzaileek eskatu dute izena emanez gero kale ez egitea; edo kale eginez gero, aldez aurretik abisatzeko. Plaza mugatuak dira, eta ohartarazi dute ezin dela izena eman gabe edo antolatzaileen baieztapenik jaso gabe inor agertu. 09:00etarako jarri dute batzeko ordua, Aizkorri eta Santa Klarako kaleen bidegurutzean. Lurguia Fundazioaren eskutik egingo da landaketa. Ura eta hamaiketako etxetik eraman behar dira, eta mendiko botak eramatea gomendatu dute. Eskularruak eta landatzeko-tresnak antolatzaileek banatuko dituzte. Izena emateko info@lurguia.org e-postara mezu bat bidali behar da, izen-abizenak, adina, udalerria eta telefono zenbaki bat zehaztuz.

Deba Bailarako Kontseilu Sozialista aurkeztu dute

Autodefentsa proletarioa antolatuta lemapean aurkeztu zuten Deba Bailarako Kontseilu Sozialista joan zen abenduaren 26an, "zapalkuntzarik gabeko gizarte baten alde" ekarpena egiteko. COVID-19ak eragindako krisiaren eraginez langile klasea jasaten ari den "pobretze eta kriminalizazio orokortuaren testuinguruan" kokatu dute kontseiluaren sorrera. Bailarako egoeraz ere mintzatu ziren aurkezpenean eta gure bailarako ikur zana den industrian eman diren aldaketak, kaleratzeak eta hainbat fabrikaren itxierak aipatu zituzten besteak beste, eta horiek arlo sozialean eta kulturean ekar ditzaketen aldaketa sakonez ere ohartarazi zuten. Horretarako, "proletargoaren autodefentsa mekanismoak" antolatzeari ekingo diotela azaldu zuten, bai eta ideia sozialistak hedatzeko eta indartzeko tresnak sortzen ere. Euren lan-esparrua, baina, ez dute Debabarrenara mugatu nahi. "Aurrerapauso organizatibo hau Euskal Estatu Sozialistaren eraikuntzari egiten diogun ekarpen gisa ulertzen dugu", zabaldu dute prentsa ohar bidez.

Angel Fernandez de Jauregi hil da, Elgoibarko alkate izandakoa



Angel Fernandez de Jauregi elgoibartarra hil zen urtarrilaren 8an, 88 urte zituela. Elgoibarko alkate izan zen 1977ko irailetik 1979ko apirilera.

Euskal presoek aurkako salbuespen legediak amaitzeko eskatu zuten zapatuan 'Bidea Gara' mobilizazioan



Bidea Gara presoek aldeko mobilizazioak egin zituzten zapatuan Euskal Herriko 238 auzo, herri eta hiritan eta Sarek emandako datuen arabera, 50.000 lagunetik gora mobilizatu ziren. Elgoibarren ere herritar ugari batu ziren Maalako parkean. Sarek "salbuespen neurriak" aldatzeko garaia dela aldarrikatu zuen elkarretarazteetan, eta presoak hurbiltzeko eta gradu progresioan aurrera egiteko eskatu. Eskari horrekin bat egin dute EAJK, EH Bilduk eta Ahal Duguk, baita euskal sindikatu guztiak ere. Sarek "oinarizko" sei eskari egin ditu: euskal presoak euskal herriratzea, senideei eragindako zigor erantsia amaitzea, preso guztiei gradu progresioa ahalbidetzea, larrigaixo dauden eta adinez nagusi diren presoak etxeratzea, haur motxiladunek gurasoekin bizitzeko duten eskubidea errespetatzea, eta Frantzian betetako zigor urteak Espainian kontuan hartzea.

Urruzunoko zabortegia erabat ixteko lanak maiatzean hasiko dituzte

Urruzunoko zabortegi zaharreko 2. gunea behin betiko ixteko eta ondoren ingurumena berreskuratzeko obrak kontratatatzeko prozesua abiaraztea onartu zuen abenduan Debabarreneko Mankomunitateak, eta 1.507.556 euroko lizitazio-aurrekontuarekin atera du lehiaketara. Behin betiko obra maiatzean hastea espero dute arduradunek, eta, ondo bidean, sei hilabeteko iraupena izango duela iragarri dute. Eremu hori zigilatuta, zabortegia erabat itxiko da, 1. gunea 2013an itxi baitzen. Obrak hasi aurretik egin beharreko lanak amaitu dituzte dagoeneko, eta orain bi prozesu kontratatuko dituzte: alde batetik, obra zuzentzea eta geosintetikoaren kontrola, eta, bestetik, obra bera egitea. 129.205 eurokoa izango da obra zuzendaritzarako eta geosintetikoaren kontrolerako lizitazioa, eta 1.378.350,50 eurokoa obretarakoa. Behin obra bukatuta,



Mankomunitatearen materialen biltegi gisa erabili nahi dute gune hori: edukiontzia, makina-garbitzaileak... gordetzeko.

Gabonetako zozketako zenbaki sarituen berri eman du Txankakuak

Txankakuak Gabonetako zozketako zenbaki irabazleen berri eman du. 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari eman dituzte, 1.800 euro orotara. Saria erosketa txeketan jasoko dute irabazleek, eta Txankakua Merkatarik elkarteko dendetan gastatu beharko dute. Txartel sarituen jabeek otsailaren 7ra arteko epea dute irabazitako txartelak aurkezteko.

- ◆ 9.260 500 euro (50.776)
- ◆ 56.221 500 euro (73.449)
- ◆ 86.486 100 euro (69.045)
- ◆ 86.768 100 euro (55.071)
- ◆ 36.941 100 euro (11.582)
- ◆ 4.857 100 euro (17.905)
- ◆ 91.819 100 euro (12.329)
- ◆ 74.416 100 euro (62.797)
- ◆ 44.692 100 euro (40.805)
- ◆ 48.181 100 euro (17.002)

Ikastolako Loteriari dagokion saria urtarrilaren 31 ra arte kobratu daiteke

Elgoibar Ikastolako Gabonetako loteria dutenek jokatutakoa berreskuratzeko aukera izango dute. Kobratzeko Ikastolako bulegora joan behar da, urtarrilaren 31a baino lehen, honako ordutegian: goizez, 8:30-9:30 / 12:00-13:00, eta arratsaldean, 16:00 - 17:00.

Eire Vilak eta Mikel Etxanizek irabazi dituzte BARRENEK zozkatutako Errigorako otarrak

Elurretako argazki bilduma osatzeko herritarren kolaborazioa eskatu genuen, eta partaideen artean Errigorako bi otar zozkatu ditugu. 108 lagunek bidali dizkigute elurretako argazkiak, eta guztira 500 erretratutik gora jaso ditugu. Eire Vila eta Mikel Etxaniz izan dira saridunak eta dagoeneko jaso dute euren saria.





Sabin Osoro Unzueta

2021eko urtarrilaren 8an hil zen, 98 urte zituela.
Familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

*"Poliki-poliki joan zara emendatzen, Sabin
eta joan zara
isilik, apal, elegante
halakotxia zinan.
Itzali zara, bai, Sabin
baina argitasun berezi bat
laga dozu gurian"*

Etxekuak




M^o Pilar Barruetabeña Barruetabeña

2021eko urtarrilaren 4an hil zen, 79 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Angel Fernandez de Jauregui Olañeta

2021eko urtarrilaren 7an hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Manolo Ibarlucea Arano

2021eko urtarrilaren 9an hil zen, 77 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Aita, gugandik joanda ere,
beti irribarre batekin gogoratuko zaitugu.
Maite zaitugu. Beti gure bihotzean.*

Etxekoak



Sabin Osoro hil da, enpresa, kultura eta gizarte alorreko hainbat egitasmoren sustatzaile izandakoa Elgoibarren

Barikuan hil zen Sabin Osoro Unzueta (Elgoibar, 1922), 98 urterekin. Elgoibarren gizarte eta enpresa alorreko hamaika ekimenen sortzaile eta sustatzaile izan zen, tartean Elgoibarko Izarra kultur elkartearena berarena. Felix Etxeberria *Parapan* eta Jesus Larrañaga *Plaentxi* (†) izan zituen lagun Elgoibarko Izarra sortzeko, eta bi helbururekin jardun ziren lanean: urtebete lehenago sortu zen Ikastola babesteko eta elgoibartarren euskaltzale-tasuna esnarazteko. Hala aipatu zuen Osorok berak elkartearen 40. urtemugan Elgoibarko Izarrak argitaratu zuen *Izarren hautsa* liburuan.

1.922an jaio zen Sabin Osoro eta haren curriculum pertsonal-profesionala gizarte eta enpresa arloko ekimenei lotua egon zen beti, bai Elgoibarren eta baita Debabarrenean ere. Eta egindako lana eskertu eta aitortu zioten 2014an, Gure Balioak sariarekin. Haren izaera “adoretsua” eta “izaera bisionarioa” nabarmendu zituen orduan epaimahaiak. Bere garairako gizon aurreratua izan zela jaso zuten eta buru-belarri jardun izan zela beti lanean, protagonismoa izkin eginda. Bere buruaz honela zioen berak, baina: “Ezinegon handikoa izan naiz, ameslari xamarra beharbada”. Eta amets egin zuelako eta lagun onez inguratzeko jakin zuelako eman zion horrenbeste Elgoibarri.

Osoro Danobat enpresaren sortzaileetako bat izan zen, eta kooperatiba-urreko egitura sozietarioaren ideologoa ere bai. Enpresa hura kooperatiba bihurtu zenean Batzar Nagusiko presidente izendatu zuten. Era berean, Eguzki eta Goiti enpresen sorreran ere parte hartu zuen. Kultur ekimenei egindako ekarpenetan, berriz, nabarmenezkoak dira ondokoak: Ongarri Kultur Elkarte sortu zuen 1959an eta Elgoibarko Izarraren sortzaileetako bat ere izan zen, esan bezala. Euskara eta euskal kulturaren alde lan nekazina eta ordainezina egin zuen Osorok eta eskertuak gatzazkio horregatik. Elgoibarko Izarraren hasierako urte haietan, elkartearentzako diru-eskean eta dirua lortzeko ekimenak pentsatzen eta prestatzen jardun zen Osoro batez ere. Berebiziko lana izan zen harena, Elgoibar euskaldunago egiteko ahaleginean. Bere egitekoa zein izan zen galderari honela erantzun zion berak *Izarren hautsa* libururako: “Dirua lortzea, papel kontuak egitea eta Felixi [Felix Etxeberria] laguntzea izan ziren nire egitekoak Elgoibarko Izarran”.

Pentsalari eta akuilu

Kultur alorrean ez ezik, gizarte alorreko hainbat proiekturen bueltan ere jardun zen lanean. La Elgoibarresa kontsumo kooperatiba eratu eta sustatu zuen esaterako, gero Eroskin integratu zena, eta IZPI ere sortu zuen, elbarriei laguntzeko enpresa. Era berean, Drogak Eragindakoen Elkartearen ere lan handia egin zuen Osorok, Elgoibarren historiako garai ilunenetako batean.



Azken horren inguruan, baina, Garbiñe Uriguen emaztearen figura nabarmendu nahi izaten zuen beti. Sarri esan izan zuen aitortza gizonek jaso arren elkarre asko emakumeen lanari esker sortu eta hazi zirela. IZPI elkartearen inguruan galdetuta, hone-laxe esan zion aldizkari honi, 2014an Gure Balioak saria jaso ondorenean emandako elkarrizketan. “Emaztearen ideia izan zen IZPI sortzea. Ezinduei laguntzen ibiltzen zen, eta behin joan zen Bergaran zabaldu zuten tailer bat ikustera eta hain gustatu zitzaion asko proiektu hura, taldeko lagun ezinduei Elgoibarren halakoxe tailer bat sortuko zutela agindu ziela. Eta etorri zitzaidan gero laguntza eske. Udalean aurkeztu nuen proiektua eta Jaurilaritzara ere jo nuen, diru eske. Hamahiru milioi eskatu genizkion euskal gobernari lokala erosteko, eta proiektua eskualde osorako egiten bagenuen emango zigutela agindu ziguten. Eta halaxe, Elgoibarrerako zena eskualde osorako egin genuen. 140 langile izatera iritsi zen IZPI. Benetan tailer polita eta proiektu garrantzitsua izan zen urteetan”. Droga mendekotasuna zutenei laguntzen egindako lana ere aitortu izan diote askok Osorori, baina hor ere emakumeek egindako lana azpimarratu izan zuen berak beti. “Drogekin, berriz, arazo handiak izan ziren Elgoibarren. Batzorde bat sortu zuten, eta emaztea ibili zen han ere ni baino gehiago”.



III. URTEURRENA

Pedro Mari Esnaola Irusta

"Musillo"

2018ko urtarrilaren 16an hil zen, 88 urte zituela.

***Erraza izan da zu maitatzea, ezinezkoa, ordea, zu ahaztea.
Beti izango zaitugu gure bihotzetan.***



II. URTEURRENA

Francisco Sota Allende

2019ko urtarrilaren 17an hil zen, 88 urte zituela.

***Madarixako baso eta zelaietan
haizearen lagun zaitugu, aita!***



IX. URTEURRENA

Mari Karmen Gabilondo Etxabe

2012ko urtarrilaren 19an hil zen, 58 urte zituela.

***Ez nau beldurtzen egunsentian
arnas zuridun izotzak
nun dirudien bizirik gabe
natura zabal hilotzak,
eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak
eta begien mila ernegai
iraganaren oroitzak.***

(Xabier Lete, A. Valverdek eta M. Laboak musikatua)



Eskertzak eta urteurrenak **943 743 704 / 943 744 112**
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Pako Iriondoren omenezko eskulturari panelak kendu dizkiote: "Idotorbeko frontoian Pako Iriondoren omenezko eskultura bat dago, berari buruzko informazioaz gain, inguruko mendiei buruzko panel batzuk dituen. Eskulturaren alde bateko informazio-panela kendu egin dute, eta badiudi indarrez kendu dutela, gainera. Ez dirudi bera bakarrik edo eguraldiaren eraginez erori denik. Ematen duenez norbaitek nahita kendu du. Morkaikoko jaiotzarekin ere gauza bera egin dute. Pieza bat kendu dute, indarrez. Jendeak ez du ezer errespetatzen. Lotsagarria!".



Elurraz goatzera joan diren hainbat herritarrek ez dituzte baserritarrak aintzat hartu: "Azkarate auzoko baserritarrak ez gaude batere pozik herritarrek asteburuan izan duten jokabidearekin. Elurraz goatzera etorri dira asko gure auzora, eta autoak edozein lekutan aparkatu dituzte. Baserri bideak oztopatu dizkigute: ez dute utzi anbulantzia bat edo elurra kentzeko makina pasatzeko lekurik ere, eta zerbait esan diegunean, haserretu egin zaizkigu gainera. Jarrera oldarkorra erakutsi dute askok. Ez dira konturatzen adineko asko bizi direla baserrietan eta edozein momentutan izan dezakegula etxetik presaka irteteko beharra edo anbulantziari deitzeko beharra. Elurra eta natura benetan gustuko badituzte, etor daitezela oinez, autoa herrian utzita, eta bestela, errespetatu ditzatela elkarbizitza arauak. Ez sinistekoa izan da asteburukoa: plastikoak nonahi, jendea maskararik gabe... Errespetu apur bat eskatzen dugu. Mendiaz goatzea ondo dago, baina arauak errespetatu behar dira".



Iriondo eraikineko iturria kendu egingo al dute etxe berriak egiteko?: "Iriondo eraikineko iturria kendu egingo dutela entzun dut kalean, eta pena hartu dut". Etxeak egingo dituzten enpresarekin harremanetan jarri da BARREN, eta esan dutenez, iturria mantendu egingo dute. Obrak iraun bitartean kendu egingo dute, garbitu eta berrietzeko, baina etxe berriak egin ondoren berriz jarriko dute".



Eskerrik asko Errege Magoei, San Lazarora bisitan etortzeagatik: "San Lazaro egoitzako kideok eskerrak eman nahi dizkiegu Elgoibarko Parrokiako katekistei eta Nagusilan elkarteari, haien bitartez aurten ere Errege Magoen bisita jaso dugulako egoitzan. Mila esker, baita ere, Elgoibarko Udal Ludotekari. Mila esker denei bihotz-bihotzez Gabonetan gurekin gogoratzeagatik".



► JUNE IBAÑEZ GARCIA GOZOGILEA

“Itxialdian eman nion forma gozogintza tailerraren proiektuari, Etxalarko landa etxe batean geundela”

4 urte eta urtebete pasatxoko neska-mutiko biren ama da eta hala aurkezten du bere burua, ama egin zenean erabaki zuelako ordura arteko lanak laga eta herrian gozogintzako tailer propioa sortzea: Galle-Tiak. Etxetik kanpora (ere) lan egin nahi zuen, baina aldi berean, baita ahal zen guztian seme-alabekin egon ere, eta topatu zuen modua. Konfinamenduan diseinatu zuen bere nahi eta beharretara ondoen egokitzen zen negozio-eredua eta urrian zabaldu zuen obradorea. Eta hasiera “ezin hobea” izan du. Dozenaka zorion-agur mezu jaso ditu telefonoan eta sare sozialen bidez Gabon ostean, eta orain, amets egiten jarraitu nahi lukeela dio. Amesten eta hazten jarraitzeko, baina, ekintzaileentzako dirulaguntzen zain jarraitzen du. “Ahoa betetzen zaie laguntzen kontuarekin, baina erraztasunik ez dago”. Momentuan webgunea sortu du (galle-tiak.com) eta Facebooken ere badago, Galle-Tiak Mendaro izenarekin.



◆ Noiz eta nolatan animatu zinen gozogintzako tailerra sortzera?

Lanari adikzioa izan diot beti eta ama egin aurretik hainbat negozio zabaldu izan ditut. Zabaldu izan ditut okindegiak, kafetegiak, bai eta dendak ere, beste pertsona batzuek kudea zitzaten. Beste batzuek ekoizten zituzten produktuak saltzen ibili izan naiz bizi osoan, hori bai. Baina halako batean Zigor ezagutu nuen Donostian. Garai hartan kafetegi batean ari nintzen lanean Donostian eta erabaki nuen Donostiako oihan hartatik ihes egitea, hiriburua oihana delako. Altzolara etorri ginen bizitzera eta hilabeteren barruan haurdun gelditu nintzen. Jare izan nuen erritmoa jaitsi behar izan nuen halabarrez. Eta bi urte t'erdira iritsi zen Adur. Ordurako Mendaron geunden, herri txiki batean, bi ume txikirekin, eta ulertu arren,

ez nintzen gai euskaraz solasaldi bat izateko. Nora joan behar nuen nik lan bila egoera horretan? Diru premia apartekorik ez neukan, baina ez nuen nahi ama izatera mugatu. Emakume naiz ama izan aurretik eta lana egin nahi nuen, baina nire ordutegi beharretara egokitzen zen lan-tipoa behar nuen. Ordura arte probatutako negozio-ereduek, beraz, ez zidaten balio, dendek eta tabernekin ordutegi lotua dutelako eta nire egoeran ezin nuelako, edo ez nuelako nahi. Eta bizitza osoa eman dudanez gozogintzako tailerren jiran, horrekin amesten hasi nintzen.

◆ Pandemia bete-betea erabaki ze nuen negozioa sortzea, dozenaka negozio txikiren azkena iragartzen hasiak zirenean. Ausarta izatea zer den!

Bai, eta bultzada nagusia zein izan zen badakizu? Banatzaile bati erosten nizekion beti txokolatezko gailetak eta erdiak baino gehiago apurtuta iristen zitzaizkidan beti. Amorrarazita ninduen horrek, eta horrexegatik erabaki nuen neu hastea gailetak egiten. Donostiako Goxo-Lanak gozogintzako tailerlean hazi naiz ni. Senide izan ez arren, etxe-etxe izan ditut beti Pepe, Mikel eta gainerako langile guztiak eta haraxe jo nuen laguntza eske, Peperengana [Pepe Castillo]. Aurten erretiroa hartuko du, eta bera ari zait gozogintzako sekretu guztiak irakasten. Halaxe hasi nintzen gailetak egiten, etxean propio horretarako egokitutako gela batean. Etxean egindako gailetarik, baina, ezin nuen saldu eta horregatik Goxo-Lanakera jo nuen berriro. Nik etxean sortutako erretzetak edo formulak eman eta gailetak haiek euren lantegian ekoiztea proposatu nien. Nire gailetak ziren, neuk emandako osagaiekin eta neuk esandako kantidadekin egindakoak, baina baldintza egokian sortutakoak. Inbertsio handirik egin gabe merkaturatu nituen nire lehenengo gailetak, eta arrakasta izan zuten. laz izan zen hori, eta konfinamenduan guzti horri forma ematea lortu nuen, Nafarroan.

◆ Nafarroan?

Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri bezperan Etxalarko nekazal etxe batera [Bagoleko borda] alde egin nuen

bikotekidea eta seme-alabak hartuta, itxi egingo gintuztela aurreikusten nuelako. Hamabost egunerako alokatu nuen etxea, baina iristeaz batera, etxe-areak, Ameliak [Pajares] –oso emakume jatorra bera– esan zigun hamabost egunetik gora egiten genituen egun guztiak gonbidatu gisa egingo genituela. Bi hilabete eta erdi egin genituen han, eta Ameliak sukaldatzen irakatsi zidan. Bizitza osoan ezingo diot eskertu gugatik egin zuen dena. Maiatza azkenaldera itzuli ginen, kalera irteteko baimenak eman zituztenean. Bordan geundela eman nion forma proiektu honi. Ez nuen aspertzeko tarterik izan. Hantxe sortu nuen logoa ere, eta itzuli nintzenean martxan jarri nintzen. Lokal hau erosi nuen nahiko modu onean, baimen eskaera guztiak jaso nituen eta ekin nion gozogintzari. Urrian zabaldu nuen. Azkarrira izan da dena, besteak beste jende ona izan dudalako inguruan eta asko lagundu didatelako denek. Horregatik askotan uste dut proiektu hau denona dela.

◆ Eskaintza asko handitu duzu denbora motzean. Hasi, baina, zerekin hasi zinen?

Egunean kontsumitzekoa ez zen produktu batekin hastea erabaki nuen, lanera egunero joan beharrik ez izateko, ume txikiak ditudalako eta nahi nuelako haien ondoan egon nire premia zuten guztian. Industria da hau, ez da ordu jakin batean zabalitzen eta ixten den denda, jende askok hala uste badu ere, eta aipatutako arrazoi horregatik, erlojuari lotua bizi nahi ez nuelako, huts-hutsean gailetekin hastea erabaki nuen, hiru hilabeterako iraupena dutelako, hutsean enbasatuz gero. Horrek aukera ematen zidan egun batean 400 gaileta egiteko, eta hurrengoan umea gaixo banuen, etxean gelditzeko. Saltzeko aukera ere badaukat, eta garbi izan ni hemen banago eta bezeroak eskatzen duen hori baldin badaukat, emango didala, baina berez beste profesional batzuek saltzeko ekoizten dut. Lasarten, Hernanin, Eibarren, Tarrasan... saltzen dituzte nire gailetak eta bidalketak ere egiten ditut Espainia osora. 30 bat gaileta ezberdin eskaintzen hasi nintzen urrian,

eta orain gailera beganoak batuta, 65 bat izango ditut, eta datorren astean glutenik gabekoekin ere hasi nahi nuke, bai eta kaferako pastatxoak egiten ere, askok eskatu didatelako.

◆ **Ez ahaztu palmerak aipatzea.**

Eta palmerak, bai. Kuadrillako batek tentatu ninduen palmerak egitera, Aidak. 'Zergatik ez duzu palmerarik egiten?' bota zidan, eta ezin nuela erantzun nion, laminatzeko bost bat metroko makina behar delako horretarako. Baina ez zuen lan handia izan ni xaxatzen, berehala berotu nintzen-eta. Gau hartan bertan hasi nintzen ideia horri bueltaka eta biharamunean Peperi deitu nion galdetzeko ia hojaldrea egiten hasteko lekurik lagako ote zidan eurenean. Baietza eman zidan, eta biharamunean han nintzen Donostian, Peperenean, hojaldrea egiten ikasten. Momentuan, astero joaten naiz Goxo-Lanakera eta hango txoko batean ematen ditut orduak eta orduak hojaldrea egiten. Han bertan moztu, ontzietan sartu eta izozteko ekartzen dut gero, arrautzarik eta irinik ez duen oreia izanda arazorik gabe izoztu eta landu daitekeelako gero. Momentuan hala moldatzen naiz, baina hasia naiz laminatzeko makina neure lantegian non jarri pentsatzen. Mahai gainean ikusten duzun hojaldre hori Donostian egindakoa da, eta hor daukat hiltzen.

◆ **Hiltzen?**

Bai, hojaldreak hil egin behar du. Eginez ikasi nuen hori ere. Lehenengo aldiaren moztu nituen hojaldre zatiak, egin nituen palmerak, eta egostean izugarri hazi zen hojaldrea. Pepek azaldu zidan hiru-lau bat egunean kanpoan utzi behar dela hojaldrea, hiltzen, harekin lanean hasi aurretik. Palmerak izan duten arrakasta izugarria izan da. Ez nuen asko usteko hasieran!

◆ **Inguruko gozotegi erreferentziazkoak, Elgoibarko Muruamendiaraz eta Debako Ekain itxi zituzten. Horrek lagundu dizula uste duzu?**

Baliteke. Muruamendiaraz eta Ekain oso produktu onak zituzten eta haiengatik gara moko finekoak gozo-gauzan



“Muruamendiaraz eta Ekainen oso gozo onak zituzten eta haiengatik gara moko finekoak gozo-gauzan”

hemen; edo haiengatik ere bai. Garai hau ez da berez negozio bat zabaltzeko onena aqian, baina alde izan dut hori beharbada. Ez nintzen hutsune bat betetze aldera hasi egia esan, baina ziurrenik horrek lagunduko zidan. Ez dakit. Aitortuko dizut Muruamendiaraz gozotegia hartzea ere aztertu nuela. Hemen inguruko lantegi onena dauka, bezero zerrenda handia, eta eskaintza oso ona egin zidaten, baina ez nintzen animatu.

◆ **Mendaroko bizkotxoak ere aspaldi galdu ziren. Ez al duzu pentsatu horri heltzerik?**

Askok proposatu izan didate hori,

baina Mendaroko bizkotxoak egiteko harrizko labea behar da, labeko atea zabaldua ere beroa azkar galduko ez duena. Bizkotxoak egiteko, gainera, bi pertsona behar dira, batek oreia egin ahala besteak labean sartu behar dituelako bizkotxoak, azkar batean. Egon nintzen azkeneko ekoizleekin [Rosa Urain eta Juanita Elorza] hizketan ere, baina momentuan ezin dut, horrexegatik.

◆ **Mendaroko bizkotxoak beharbada ez, baina hemen dagoen hau guzti hau ere pertsona bakarrak egitekoa denik...**

Gainezka ibili naiz egunetan. Lan handia da, bai. Gozoak egin, banan-banan

enbasatu, etiketak sortu, inprimitu eta pegatu, kaxak egin, eskariei erantzun, fakturak egin, lantegira datozen bezeroak atenditu, lehengaiak erosi, lokala eta erremintak garbitu... zoramena da. 9:00etatik 15:30ak arte egoten naiz hemen, semea haurreskolan eta alaba ikastolan dauden bitartean, eta bulegoko lanak gauetan egiten ditut, ohean, mobilarekin. Hori da nire lan-erritmoa. Ahal dudala uste dudan guztiari kolpe egitekoa naiz. Gabonetan, kuadrillako batek lagundu dit Donostian entregatu behar nuen gailera eskari handi bat paketeratzen. Niretzako ideala lanerako lagun bat hartzea izango litzateke, ni goxoak egiten nagoen bitartean berak produktuak paketeratu eta saldu ditzan, baina ez dakit momentu hori iritsi den oraindik.

◆ Zer da gehien saltzen duzuna?

Kinder zaporeko palmerak eta gurin kremarekin betetako dena. Peppek irakatsi dit gurin krema egiten eta ederra baino ederragoa dago. Kafezko gailetak ere asko saltzen ditut, bai eta marrubizkoak eta txokolatez estalitako gailera beganoak ere.

◆ Zer beste duzu buruan?

Magdalenak, kaferako pastak, bizkotxoak eta ogia... egiten ere hasi nahiko nuke. Kilo erdiko bizkotxoak egiten hasia naiz, baina oraindik ez ditut publizitatu, ez dudalako horretarako astirik hartu. Ogia egiteko, begiz jota daukat harrizko labe bat, baina badakizu zeren zain nagoen? Ekintzaileentzat agintzen dituzten dirulaguntzak iritsi zain. Ahoa betetzen zaie laguntzen kontuarekin, baina ez pentsa erraz jartzen dutenik laguntzak eskuratzeko.

◆ Errege-opiletan ere egin ei duzu...

Kuadrillakoentzat egin nahi nituen, baina gain hartu dit azkenean. Kontua da abenduaren 24rako eta 25erako pastel eskean hasi zela jendea inguru gertuan ezer ez zegoelako eta erabaki nuela Goxo-Lanakekoekin berba egin eta haiek egindakoak saltzea, enkarguz eta garbi lagata ez zirela nik egindakoak. Saldu nituen mordo bat, eta hori ikusita, errege opilik egingo ote nuen

galdezka hasi zitzaizkidan bezeroak. Eta emozionatu nintzen. 12 bat egitea pentsatua nuen, baina nik dakit zenbat izan diren! 48 ordu baino gehiago eman nituen Goxo-Lanaken errege-opilak egiten. Izan ere, hasieran hemen egin nahi nituen, baina hainbeste eskaera jaso nituen ezin izan nintzela hemen moldatu. Goxo-Lanakeko makina guztiak behar nituen eskura. Izugarritzko lana

izan da, eta ondorioak pagatzen ari naiz, baina erantzuna ikusita merezi izan du. Hunkituta nago jaso ditudan zorian mezu guztiekin. Saint Geronsekoek [Mendaroko txokolateroak] ere eskatu zitaten errege-opila eta aitortu beharra daukat oso urduri jarri nintzela Saint Geronstarrak ez direlako edonor gozogintzan, baina ederra zegoela erantzun zitaten eta ni ezin pozago!

“Ogia egiteko, begiz jota daukat harrizko labe bat, baina ekintzaileentzat agintzen dituzten dirulaguntzen zain nago”



Aurrekontuak onartu ditu Mendaroko Udalak, justuko babesarekin

Mendaroko udalbatzaren osoko bilkurak abenduaren 17an onartu zuen 2021erako aurrekontua, EAJren aldeko botoekin. EHBilduko zinegotziek kontra bozkatu zuten eta PSE-EEkoa abstenitu egin zen bozketan. Guztira 2.764.000 euroko aurrekontua izango du Udalak aurten, iaz baino 64.000 euro handiagoa.

- AINARA ARGOTIA -

2.764.000 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak 2021ean, iazkoa baino 64.000 euro handiagoa. Abenduaren 17an onartu zituzten aurrekontuak ezohiko batzarrean, EAJren botoekin. Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan, eta EHBilduko zinegotziek kontra bozkatu zuten. Aurrekontu "kontinuistak" zirela eta herriko erronkei ez zietela erantzuten esanez arrazoitu zuen Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotziak bere abstentzioa. EH Bilduk, berriz, "ideia berri gutxi" izatea eta "lankidetzarako gaitasuna" falta izatea leporatu zizkion EAJri.

lñaki Arregi alkateak esan zuen hiru ardatzi edo helbururi erantzuten dietela 2021erako aurrekontuek: herritarrek babestea eta herritarren ongizatea bermatzea, garapen ekonomikoa eta enplegua sustatzea eta Udalak 2019-2023ko Legealdi Planean jasotako proiektu estrategikoak zimentatzea. "2021erako onartu ditugun kontuak aurrerakoiak dira, eta guztiz salbuespenekoak onartu diren garaiko testuinguruagatik. Udalak aurrezkiak ditu, diru gerakina, eta diru hori erabiliko dugu inbertsio publikoa indartzeko". Pandemiaren testuingurura "egokitutako" aurrekontua dela zehaztu dute horren harira. Sarrerak txikiagoak izan direla, baina Udalaren egoera finantziario onak ahalbidetuko duela zerbitzu guztiak mantentzen, gizarte zerbitzuak indartzen, ehun ekonomikoa babesteko neurri berriak hartzen eta inbertsio-plana garatzen.

Gastuei dagokionez lñaki Arregi alkateak esan zuen, oro har, mantendu egingo dutela gastu arrunta, Gizarte Zerbitzuen arloan izan ezik. Alor horretan handitu egin dute aurrekontua, "mendaroraz zaugarrienak babesteko". "Etorrizuna nahi dugu eraiki, baina noski, inor atzean utzi gabe". Bide horretatik alkateak nabarmendu du aurrekontuek "elkarlana" dutela oinarri. "Oposizioekin bilera ugari egin ditugu eta beren hainbat eta hainbat ekarpenekin aberastu dugu aurrekontua". Eta gehitu du: "Jarrerak hurbildu eta adostasun eremu batera iritsi gara, bozketan hala izan ez bada ere, eta oposizioaren proposamen gehienak barneratuta daude. Uste dut guztion artean eraiki behar dugula Mendaro, eta ezberdin egiten gaituen hori balioan jarri". Azken horrekin ez dator bat oposizioa. "Gehiengoan balego bezala jokatzeke ohitura hartzen hasia da EAJren Udala Gobernu" salatuta dute EH Bildutik.

2021KO UDAL AURREKONTUAREN LABURPENA

SARRERAK	
Zuzeneko zergak	501.400
Zeharkako zergak	23.800
Tasak eta bestelako sarrerak	336.100
Transferentzia arruntak	1.698.700
Ondare sarrerak	11.000
Inbertsio errealen inorenganaketa	2.000
Kapital transferentziak	39.000
Finantza pasiboak	152.000

Sarrerak guztira 2.764.000

GASTUAK	
Langileen ordainsariak	729.400
Ondasun arruntan eta zerbitzu erosketak	1.406.700
Finantza gastuak	0
Transferentzia arruntak	155.900
Kreditu globala	125.000
Inbertsio errealak	347.000
Finantza pasiboak	0

Gastuak guztira 2.764.000

Inbertsioen atala

494.700 euro bideratuko ditu guztira Mendaroko Udalak gizarte-zerbitzuen zorrora. Diru horren zati handiena, 110.000 euro, etxer etxeko laguntza zerbitzua indartzeko erabiliko dute. Familientzako laguntzetarako gordeko dute 22.000 euro eta nerabeei laguntzeko diru-lerroa bikoiztu egin dute 2021erako, 30.000 eurokoa izango delarik. Era berean, mantendu egin dituzte familian esku hartzeko programak, Berdintasun Plana egikaritzeko plana eta ekimen so-

2021eko TRANSFERENTZIA ETA INBERTSIO NAGUSIAK

Informazio prozesuetan inbertsioa.....	5.000
Kultur Etxerako altzariak	2.000
Kultura eta identitatea.....	8.000
Gazte Plana.....	9.000
Erabilera askotariko eraikinean hobekuntzak.....	7.000
Hirigintzako obra txikiak.....	20.000
Auzoetan konponketak.....	20.000
Mendaro Ospitalera irisgarritasuna hobetzeko igogailua jartzeko plana	93.000
Landa eremuan inbertsioak.....	150.000
Eraginkortasun energetikoa.....	25.000
Brigada.....	3.000
Biltegirako eskuzko igogailua.....	5.000

AURREKONTUAK, SAILKA

ANTOLAKUNTZA SAILA..... 699.900 (%25,32)

LURRALDE SAILA.....985.700 (%35,66)

HERRITARTASUN SAILA.....1.078.400 (%39,02)

GUZTIRA 2.764.000

Udalbarrian, udaleko barne antolakuntza sistema berrian, sartuta dago Mendaroko Udala. Sistema horrek udalaren funtzionamendua eraginkorrago egitea bilatzen du. Hala, Udaleko sail historikoak hiru multzotan banatuta ematen dira orain: Antolakuntza (Administrazio Saila), Lurraldea (lehengo Hirigintza eta Nekazaritza sailak) eta Herritartasuna (Kultura eta Gizartekintza sailak). Banaketa horren arabera, aurrekontuaren %39,02 Herritartasuna departamenduak hartzen du, %35,66 Lurraldeak, eta %25,32 antolakuntzak.

lidarioak, baita migratzaileei laguntzekoak edo kultura-aniztasuna kudeatzekoak ere. Ongizatearen alorrean 223.100 euro aurrekusi dituzte Jubilatuen Etxearen kudeaketa gastuetarako eta Eguneko Zentroaren gestio gastuetarako. Sail horren barruan, Udalak lokal bat ere egokitu du udaletxeko atarian, gizarte talde eta herriko eragileek bilerak egiteko erabil dezaten.

Energia eraginkortasuna

Trantsizio energetikorako eta mugikortasun alorrerako dirupartidak ere zehaztu dituzte. Batetik, 25.000 euro erabiliko dituzte gaur egungo argiak led teknologiko argiekin ordezkatzeko. [Ikastolan eta frontoiak aldatu zizuzten iazko partean]. Debegesaren eskutik ikerketa hasi dute Udalean, udaletxeko energia kontsumoaren inguruko azterketa egiteko, jakiteko zein izango litzatekeen energia kontsumo egokiena eta neurriak hartzeko. Horren barruan, Bake Epaitegia lekuz aldatu dute: orain arte, udaletxeko arkupeetan egon da, baina, orain, udaletxe barrura aldatu dute lekuz, hirugarren solairura. Mugikortasunaren alorrean, bestalde, hainbat ho-

bekuntza-obra egingo dituzte. "Mendaroko Udalak protagonismo eta segurtasun handiagoa eman nahi dio oinezkoari. Horregatik, hainbat hirigintza-obra txiki egingo dira, bai eta hobekuntzak ere auzoetan". 40.000 euro aurrekusi dituzte horretarako.

Kultura-programaziorako, kiroletarako, euskararako eta gazteriarako aurrekontuari eutsi egingo diote. Hala, 583.700 euroko partida izango du Udalak kultura eta identitatearekin lotutako alorrerako. "Gizarte, kultura, gazte eta kirol eragileak dira gure udalerraren motorra. Horregatik mantentzen ditugu arlo horietan diharduten gizarte-talde eta eragileentzako dirulaguntzak", zehaztu dute. Era berean, 75.000 euro banatuko ditu Udalak 2021ean herriko eragileei, diru-laguntza bidez. Gizarte alorrean ere, Udalaren diru-laguntza jasoko dute Proyecto Hombre, Atzegi, Odol Emaileak eta Deparkel erakundeek, baina apalagoak. Nazioarteko pobrezia aurre egiteko, berriz, 1.200 euro emango dizkio Udalak Zaporeak elkarteari. Lesbosko Moriako errefuxiatuen kanpalekuan dihardu lanean Zaporeak elkarteak.

Alderdien esanak



“Adostasuna nahi genuen, saiatu gara lortzen eta ez dute nahi izan”

lan egin eta Mendaro aberats eta oparo bati bidea egitekoa. Guztion eskutik, guztiontzako, gure herriaren oraina eta etorkizunarentzako.

Horregatik lehenetsi dugu gizarte zerbitzuen bermea, inbertsioa areagotuz, edota enpleguaren sustapena, ekosistema ekonomikoa mantendu eta bultzada emanaz. Herri jasangarria eta irisgarria dugu jomuga: LED argiteria, ospitalerako igogailua, Azpilgoeta auzoa, eta lantzen ari garen beste hainbat: zubi berria, industrialde berria, etxebizitza berriak, futbol zelaia... Herri atsegina, garbia, azpiegitura egokiek: kiroldegia... Proiektuak landu eta exekutatu; lan egin.

Proiektu partekatua da jeltzale mendaroarrona; egin dezagun guztiok batera herri bizi, aurreratu eta atsegina”.



“Mendaroko Udalak herri proiektu bat du lehen aldiz, 2019-23 Legealdi Planean jasoa, jomuga zehatz batzuekin: herritarren ongizatea bermatu eta alor ekonomiko eta sozialean au-

kera berriak eskaintzea. Hitza eman genuen eta hitza betetzen ari gara, baita Covid-19ak eragingandako pandemiak utzitako une zail hauetan ere.

Zentzu horretan penaz hartu dugu gainerako udal taldeen erantzukizun falta. Adostasuna nahi genuen, saiatu gara lortzen eta ez dute nahi izan. Gainerako alderdiekin bilera ugari egin ditugu eta beren hainbat eta hainbat ekarpenekin aberastu dugu aurrekontua. Ia guztiak barneratu dira, eta hala ere ezezkoa eman dute. Estrategia hutsa. Argi dugu lanerako unea dela, ez ordain politikoa lortzekoa. Gure eskuak luzatua jarraitzen du, beti bezala.

Herritarren alboan are gehiago egoteko garaia da, elkarrekin



“Talde sozialistatik abstentzio kritikoa eman diogu 2021eko aurrekontuen proiektuari, uste dugulako aurrekontu hauek ez dietela erantzuten herri honen

ertronkei; aurrekontu kontinuitateak dira. Beti betikoa da, eta ekimen berritzaile bakarrak gure taldeak aurkeztutakoak dira. Hiru milioi euro inguruko aurrezkiak izan arren, EAJ ez da gai izan proiektu berri baten diseinua proposatzeko eta ezta inguruko beste herri batzuetan funtzionatzen duena kopiatzeko gai ere. Horregatik, abstentitu egin ginen bozketan. Udal gobernuko taldeak emendekin gutxi batzuk onartu badizkigu ere, ezin dugu alde bozkatu aurrekontu proiektuak duen izaera kontinuitategatik. Onartu dizkiguten proposamenek balioko dute eskualdeko ospitaleraino igogailu bat eraikitzeko. Proiektu horrek 93.000 euroko aurrekontua izango du. Era berean, gure proposamenez 150.000 euro izango ditugu 2021ean, 2022an eta 2023an baserrietako bideak konpon-

“Egungo egoeran ezin da beti betikoa egin, eta horregatik abstentzio kritikoa alde egin dugu”

tzeko eta beste 9.000 euro gazte plan bat osatzeko.

Aurrekontuen izaera kontinuitate hau eta EAJren udal gobernuak erakutsi duen anbizio txikia akats politiko larria dira, zeinaren ondorioak Mendaroko bizilagunek ordainduko dituzten. Osoko bilkuran esan bezala, diru gerakina aurrekonturako gehitzeko aukera izan bezain laster, berriro aurkeztuko ditugu EAJk oraingoan baztertu dizkigun proiektuak. Iruditzen zaigu bizi dugun egoera honetan PSE-EEK aurkeztutako proposamenak garrantzitsuak direla, hemen bertako ekonomia sustatu eta enplegua sortzen lagunduko luketelako, eta iruditzen zaigu 2021erako udal aurrekontu proiektuan jasota egon beharko luketela”.

Aurreikusitako ekimenek Mendaroko enpresentzako laguntzak sortzea dute helburu, langileak kontrata ditzaten (150.000). Ekin-tzaitza ere bermatuta egon beharko luke gure ustez, eta horretarako, Ekingune Elkarteari 700 euroko laguntza ematea proposatu genuen, bai eta herrian kontsumitza bultzatzeko bono gehiago sortzea ere. Horretarako 12.000 euroko inbertsioa egitea proposatu genuen. Era berean, 50.000 euroko partida bat proposatu genuen kualifikazio handiko tekniko bat kontratatzeko, lizitazioak eta kontratuak kudeatzeko, ez dadin gertatu aurten gertatu den bezala gastu bat egin gabe laga behar izatea horretara-

rako epea iraungi delako.

Gure taldea kritiko da gobernu jeltzalearekin, baina aldi berean proposamenak egiteko jarrera daukagu, are gehiago orain, bizi dugun pandemia egoeran. Uste dugu gure bizilagunek arduraz jokatzeko eta herriaren interesen alde elkarrekin lan egitea exijitzen digutela, osasun-, ekonomia-, eta gizarte-krisiari erantzuteko. Hala ere, egungo egoeran ezin da beti betikoa egin, eta horregatik guk abstentzio kritikoaeren alde egin dugu”.

[Erredakzioan itzulia]

ehbildu

“2020koak ‘inoizko aurrekontu sozialenak’ izango zirela aldarrikatu zuen Iñaki Arregi alkateak duela urtebete inguru. Guk ez genuke hainbeste esango,

baina gauza interesgarriak bazirela pentsatzen genuen, besteak beste, EH Bilduk proposatuta onartu ziren dirulaguntza desberdinak jasotzen zirelako. Esate baterako, beharrik handiena zuten familiei haurren eskolaz kanpoko jardueretan laguntzeko, etxebizitza zaharretan igogailuak ezartzen laguntzeko, etxebizitzaren efi-zientzia energetikoa hobetzeko nahiz hauen CO2 isurketak murrizteko neurriak bultzatzeko etab. Bestelakoa da, ordea, gaur gure iritzia. EAJren kudeaketa kaxkarraren ostean aurrekontuen %75 baino ez baita aurrera eraman (azaro bukaerako datuen arabera). Aurrekontuan jasotako alderdi sozialenak bete gabe geratu dira. Argi dago paperean jartzea dela gauza bat eta oso bestelako kontua dela onartutako neurriak gauzatzeko gaitasunik izatea. EAJk argi erakutsi du gaitasun gabezia hori.

2021eko aurrekontu proiektuaren lanketa, nolabait deitzea-gatik, oso pobrea izan da hasieratik. Azaroaren 3ra arte ez genuen lehenbiziko zirriborroaren berririk izan. 2020ko proiektuaren kopia-pega baten itxura zeukan: ideia berririk apenas. Emendakinek egiteko eskatu zitzaigun eta zintotasunez jarri ginen lan horretara: 19 emendakin aurkeztu genituen hauen inguruko detailak negoziatzeko asmoarekin. Ez da, ordea, ezertarako aukerarik egon. Bete beharreko tramite hutsa balitz bezala gure parte. Formak gordetzeagatik egin beharrekoa, baina hasieratik izango zuten ibilbide laburra iradokiz. Emailaz erantzun ziguten gure emendakin gehienak baztertuz, eta hor bukatu zen “negoziaketa”. Gehiengoan balego bezala jokatzeko ohitura hartzen hasia da EAJren Udal Gobernuak. Baina gutxiengoan dago, ordenantza fiskalen aldaketak onartzerakoan konprobatu ahal izan zuten moduan. Ez litzateke txarra apaltasunaren bidera itzuli eta gainontzekook aintzat hartzen hasiko balira. Guztion lankidetzaren ezinbestekoa da Mendarok bidean aurrera egin dezan. Ildo horretatik proposamenak egiten jarraitzeko asmoa da gurea:

1. Mendaroko Etxebizitza Beharren Etengabeko Behatokia sortzea segmentu desberdinetako etxebizitza eskaria asetzeko.

“ 2020ko proiektuaren kopia-pega baten itxura zeukan 2021ekoak: ideia berririk apenas”

2. Bidegorriaren eraikuntza martxan jarri, Aldundiarekin batera.
3. Erreka eta ibai bazterretan, barandilen azpikaldea estaltzeko sare metalikoak jarri, haizeak zaborra uretara eraman ez dezan.
4. Bertako zuhaitz espezieko basoak sortzeko lur sailak erostea.
5. COVID-19k kaltetutako laguntzak. 2020an 88.000 euro destinatu ziren. Orain ez luke txikiagoa izan beharko zakuak.
6. Ikastolarako, musika eskolarako, gimnasia-erako, ludotekarako... HEPA aire iragazgailuak eta CO2 kontzentrazioa neurtzeko gailuak erostea.
7. Mendaro Haurren Hirien Sarean integratzea eta umeak eskolara oinez, lagunekin eta gurasoek lagundu gabe joan ahal izateko beharrezko neurriak hartu ahal izateko diru partida onartzea.
8. Udal eraikinak energia berriztagarriez autohornitzeko plana.
9. Mendaron Arno-Izarraitzeko Karstaren interpretaziogunea sortu Jaurlaritzak bultzatutako Euskal Kostaldeko Geoparkearen proiektuaren baitan (Morkaiko Espeleologia Taldeak proposatutakotik)
10. Mendaroren Suspertze Soziokomertzialerako Plana garatu.
11. Mendaroko Bizkotxoek izan dezaketenen bideragarritasun ekonomikoaren azterketa eta marketin eta gestio plana egin.
12. Alkatearen soldata urteko 45.000 eurora jaitsi. EH Bilduren garaitik %25eko soldata igoera ezarri zen (55.300 euro urtean) legegintzaldi hasieran eta, orain, igoera %30erainokoa izatea proposatu du EAJk (57.000 euro gordin urtean).
13. Internetarako konexioarekin arazoak dituzten baserriak eta herrigunetik kanpoko etxeak identifikatu eta haiei soluzioa eman.
14. Angel Basterretxea Udal Funtsa sortu herriko ondarea jaso, katalogatu, antolatu, babestu eta ezagutarazteko.
15. Liburutegiaren funtzionamendua hobetzeko proposamenak: Liburuzainaren lanaldia %100era zabaldu, ordutegia zabaldu... Liburutegian bi espazio itxi sortu (nagusiena/umeena). Wifia jarri. Horiez gain, 2020ko aurrekontuetan jaso bai, baina martxan jarri ez diren dirulaguntza deialdiak egitea”.



Jokin Artola

► Zuriz jantzita

Azken urteetako elurterik handienarekin hasi da 2021. urtea eta herritarrek ez dute elurraz gozatzeko aukerarik galdu. Aspaldian ez bezala zuritu ditu elurak gure bazterrak, eta irudi ikusgarriak utzi ditu elurteak. Zuriz jantzita, dotore daude oraindik ere inguruko mendi tontorrak. Herritarrei esker sekulako argazki bilduma osatu dugu elurretako argazkiekin. 108 lagunek erantzun diote gure eskaerari, eta 500 erretratutik gora jaso ditugu, zein baino zein ederragoa. Argazkiak bidali dizkigutenen artean Errigorako bi otar zozkatu ditugu eta Mikel Etxaniz eta Eire Vila izan dira irabazleak. Argazki bilduma osoa ikusteko www.barren.eus.



Alberto Gonzalez



Igor Sota



Asier Orbea



Andoitz Agirregomezkorta



Ixaso Irazabal



Iosu Juaristi



Marisol Espinosa



Leire Garate



Igor Ezenarro



Saioa Rodriguez



Nerea Urkizu



Asier Izagirre



Jabi Muñoz



Onintza Elizburu



Edurne Bilbao



Alberto Loiola



Pablo Magro

ELGOIBAR BHI INSTITUTUA

2021-2022 Zatoz!

2021/2022 ikasturterako DBHko aurrematrikula
urtarrilaren 18tik urtarrilaren 29ra.

Gurasoentzako bilera areto nagusian (MEKA eraikinean):

Elgoibarko gurasoentzat: urtarrilaren 20an, 17:30 eta 18:30ean

Mendaroko gurasoentzat: urtarrilaren 21ean, 18:00etan



Elgoibar BHI
www.elgoibarbhi.eus

Elgoibar BHI
Arriagale 2
Tel.: 943 899 319
E-posta: 013477aa@gozkurtxa.net



elgoibarko
lehen eskola

Kalea 5
Tel.: 943 740 879
E-posta: 012777aa@gozkurtxa.net



baikara

Opakako Berriraketa



ELKO JAKILARITZA
GOBIERNO VASCO

ELKO JAKILARITZA
GOBIERNO VASCO

Astegun buruzuri: Aste erdia astebukaerarekin kontrajartzeko.
Hik dakak baloria, hik: Gabiñera hua afaltzera astegun buruzurixan!

Julen Zabaletari eta Koldo Lizarralderi eskainiko diete aurten San Anton jaietako zigilu erakusketa

Bihar zabalduko dute Altzolatarren Dorretxea filatelia elkarteak antolatutako zigilu erakusketa. 12:30ean irekiko dituzte Kultur Etxeko erakusketa gelako ateak, eta hilaren 23ra arte egongo da ikusgai erakusketa. Itxiera egunean bertan egingo dute parte-hartzaileei esker emateko ekitaldia. Altzolatarren dorretxeak bi protagonista aukeratu ditu aurten zigilu erakusketarako: Julen Zabaleta eta Koldo Lizarralde zena. Julen Zabaleta *Yulen* 1921eko otsailaren 14an jaio zen San Bartolome kalean. Musillo baserrian izan zuten gero bizilekua, eta Sallobente auzoko eskolan hasi zen ikasketak, eta eraikin berean zegoen arte eskolan ere ibili zen, Bernardo Ezenarro irakasle zuela. Bi zaletasun handi izan ditu Julenek, mendia eta marrazketa, eta bigarren honi esker egin da ezagun, batez ere. 7.000 marrazki baino gehiago egin ditu lumaz, eta marrazki horietan Euskal Herriko herrietako eta beste hainbat lekutako ondare historikoa jaso du. Baserriak, elizak, errotak, eraikin historikoak... Bere irudiak hainbat liburu historikotako pasarteak ilustratzeko ere erabili izan dira. Koldo Lizarralde, berriz, 1950ean jaio zen Pasai San Pedron, eta 1981ean iritsi zen Elgoibarrera. Historiarako eta antropologiarako zaletasun handia zeukan eta



1982an Eusko Ikaskuntzan sartu zen, Jose Migel Barandiaran irakasle zuelarik. Elgoibarra buruzko hainbat liburu idatzi zituen, besteak beste, *El convento de San Francisco*, *Apuntes etnográficos de Elgoibar 1 y 2*, *Elgoibar eta bere errota*, *Festa herrikoia Elgoibarren*, *Elgoibarko Klub Deportiboren mendeurrena...* Errotekiko zaletasun handia zeukan eta Errotak Ikertzeko eta Kontserbatzeko Elkarteke lehendakaria ere izan zen. Mila Pikaza emaztearekin batera Elgoibarko DYA sortu zuten, eta gero Elgoibarko Gurutze Gorriaren ardura ere hartu zuten 20 bat urtean. Parrokiako Abesbatzako eta Kale Kantariak taldeko kidea zen, eta Gure Bide Elkarteke Etxaniz Memorialaren antolakuntzan ere aritu zen. 2006tik San Bartolome jaietako egitarauko artikulua idatzen zituen, eta

Filatelia elkarterako hainbat testu ere idatzi zituen. 2019ko irailean hil zen.

Gainerako egitaraua

Koronabirusak baldintzatu ditu San Anton jaiak ere, eta ondorioz, ezin izango dute aurten pilota txapelketarik antolatu. Hala ere, hainbat kultur ekitaldi antolatu dituzte: Lehenengoa gaur iluntzean izango da, *Kutsidazu bidea*, Ixabel antzerki musikala. San Anton jaietan musika kontzertua ere ohikoa izan ohi da, eta aurten ere ez du hutsik egingo: Ainara Ortega eta Angel Unzuren emanaldia izango da domekan 12:30ean, Herriko Antzokian. Datorren barikuan, berriz, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Amaren intxaurrek* antzezlan taularatuko dute Herriko Antzokian, eta zapatuan, Zetak taldearen kontzertua izango da.



Ongarri zineklubaren emanaldiak eguaztenetan izango dira otsailean

Ongarri zineklubak eguaztenetan beharrean, eguaztenetan emango ditu filmak otsailean. Hiru film emanaldi iragarri dituzte otsailerako: Otsailaren 3an *2 urte, 4 hilabete* filma emango dute (intsumisoei buruzko dokumentala), otsailaren 10ean *Sin señas particulares* eta hilaren 17an, berriz, *Para sama*. Covid 19ak eragindako egoeraren aurrean indarrean dauden neurrien eraginez, 19:00etan izango dira emanaldiak.

“Obra hau oso egokia da gazteak antzokietara joateko”

► XANTI KORKOSTEGI AKTOREA

Xanti Korkostegi (Donostia, 2002) gazteak emango dio bizia Juan Martin euskara ikasleari *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* musikalean. Joxean Sagastizabalen liburuan oinarritutako obra da, baina berrikuntzak sartu dizkio Demode konpainiak. Musika eta abestiek batera, gaur egun pil-pilean dauden zenbait gai gehitu dizkiote, besteak beste, eskola jazarpena, emakume adinekoen sexualitatea eta bazterketa. Ikuskizuna gaur izango da, 19:00etan, Herriko Antzokian.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* obra klasikoa, musikal formatuan. Zein berrikuntza ditu obrak?

Istoria betikoa da, baina abestiek asko laguntzen dute haria jarraitzen. Demode konpainiak sekulako lana egin dute abestiak sortzen. Abesti guztiak espreski obrarako prestatutakoak dira, originalak, berriak eta oso onak. Horrez gain, gai berriak ere sartu dituzte: eskola jazarpena, diskriminazioa, adineko emakumeen sexualitatea, euskal ohiturak... eta beste hainbat bitxikeria ere bai, esaterako, zuhaitzek edota sagarrek ere hitz egiten dute obra honetan.

◆ Juan Martin euskara ikaslearen papera egiten duzu zuk. Ez da zure kasua; zu etxetik zara euskalduna. Zer moduz moldatu zara Juan Martinen azalean sartzeko?

Hasieran oso arraroa egin zitzaidan. Gertatu zitzaidan entsegu baten ostean unibertsitatara joan eta gaizki ahoskatzea S eta Z hizkiak. Baina orokorrean oso ondo moldatu naiz. Taldeko aktore euskaldun berri bati tokatu zaio euskaldun zahararren papera egitea, eta niri, alderantziz.

◆ Nola iritsi zara obra honetara?

Iaz aukeratu zuten lantaldea, eta Goazen-en nire lan-idea den Maria Redondo izan zen aukeratuetakoa bat.

Sekulako zortea izan zuela esan nion, eta aprobetxatzeko. Halako batean, Juan Martinen papera egiteko aukeratu zutenak

kale egin zuela-eta,

beste baten bila hasi

ziren. Proba egiteko deitu zidaten, eta egun gutxi batzuetara esan zidaten ni aukeratu nindutela. Izugarri poztu nintzen.

◆ Zer nolako esperientzia izaten ari da?

Sekulakoa! Musikalak asko gustatzen zaizkit eta oso pozik nago. Umetatik gustatu izan zait antzerkia, eta nire ametsa betidanik izan da aktore izatea. 7 bat urte nituela hasi nintzen nire auzoko antzerki eskolan, eta astebururo joaten nintzen kultur elkartera antzerkiak ikustera. Nire


ametsa bete dut momentuz. Gustatuko litzaidake etorkizunean aktore izatetik bizitzea, baina ez da erraza. Gurasoek beti esan izan didate badaezpada B plan bat edukitzeko, eta Kazetaritza ikasten hasi naiz.

◆ Zein motako publikoarentzako obra dela esango zenuke?

Publiko zabalarentzako obra da, ume zein helduentzat, baina esango nuke obra hau oso egokia dela gazteak antzokietara joateko. Obra arina da, desberdina, azkarra, ez dago aspertzeko unerik. Antzerki mundua deskubritzeko obra egokia iruditzen zait.

◆ ‘Goazen’ teleailean aritzen zara, eta orain antzerkian ere bazabiltza, oholtzan. Zer duzu nahiago?

Antzerkia gustatzen zait gehiago, zuzenean da, autentikoagoa. Telebistan eten asko egoten dira, behin eta berriz grabatzen dugu, eta antzerkia bat-batekoa da. Dena dela, *Goazen* bezalako proiektu baten parte hartzeko aukera eduki izana izugarria izan da, gazteentzako sekulako eskola da *Goazen*.



“Abesti guztiak espreski obrarako prestatutakoak dira, originalak, berriak eta oso onak”



Erlo gaisetik hegan paraje elurtuetan barrena

Makina bat lagun igo dira azken egunetan inguruko mendietara elurraz gozatzerara, baina gutxi izango zuten losu Juaristik paraje elurtuez izan duen ikuspegia. Erloko (1.026 m) tontorretik aieratu zen parapentean, gero Azpeitian lurreratzeko. Neguan parapente hegaldi gutxiago egiten direla azaldu du parapente pilotu elgoibartarrak, hotzagatik eta eguraldia aldakorragoa eta bortitzagoa delako. Faktore asko hartu behar direla kontuan dio, haizearen indarra eta norabidea, temperatura, lainoak sartuko diren ala ez, zenbaterainokoa izango den ikusgaitasuna... "Aldaketa txiki bat nahikoa da hegaldia bideragarri ez egiteko. Saiakera asko egin behar dira eta askotan esku hutsik bueltatzen gara menditik", azaldu du. Hori bai, ez dela zorte kontua zehaztu du, behin eta berriro saiatzearena eta eskarmentua edukitzearena baizik. Oraingoan, erabat elurtuta dagoen Erlo menditik aieratzea zen erronka. Azpeitiko lagun batekin batera Erlora igo zen Juaristi Errege Egunean, urtarrilaren 6an. Hamabost bat kiloko bizkarzakuarekin egin zuten tontorrerainoko bidea, elurretan. Hego haize leuna topatu zuten tontorrean, hegaldirako aparta. Aieratzeko korrika egin behar izaten dute zenbait metroan, eta lur zati horrek garbi egon behar du, oztoporik gabe. "Tontorrean harri asko daude eta ez da batere aproposa aieratzeko. Elurtuta egotea, baina, abantaila izan da, elurrak harriak azpian hartzean aieratzeko aukera gehiago genituelako. Hala ere, Erloko tontorretik aieratzea lortu duten lehenengotarikoa parapentelariak izan garela uste dut". Hamalau bat minutuko hegaldia zoragarria izan zela aitortu du Juaristik, zero azpitik hiru gradutan egin zuen arren. "Zuriz jantzitako paisaiez gainera, mendian gora zihoazen mendizaleak, bordan zegoen jende mordoak, zaldiak... dena ikusten da airetik, eta Xoxoten dagoen San Inazioaren irudi ondotik pasatzea ere berezia izan zen". Bideo batean jaso zuten hegaldia eta *barren.eus* webgunean ikus dezakezue.

Eskola Kiroleko entrenamenduak berriro hastea baimendu du Jaurlaritzak

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian urtarrilaren 12an argitaratutakoaren arabera, eskola-kiroleko entrenamenduei berriro ahal izango zaie, gehienez ere sei laguneko taldetan antolatuta. Taldea beti pertsona berek osatuko dute, eta ezingo dira aldagelak erabili. Hortaz, udal instalazioak neurri berrietara egokitu ostean, entrenamenduekin hasteko baimena dute. Saiioekin "ahalik eta azkarren" hasteko helburua dutela esan dute Elgoibarko Eskola Kiroleko arduradunek. "Eskola kirolaren elkartea presaz bilduko da erabakiak hartzeko eta ahalik eta lasterren jakinarazteko", adierazi dute. Hori bai, intzidentzia-tasa 500etik gorakoa den herrietan bertan behera laga beharko dira Eskola Kiroleko jarduerak.

Alcortak bi partida jokatuko ditu 48 orduan

Alcorta esku-baloia taldeak Lehen nazional txapelketako bi partida jokatuko ditu asteburu honetan Olaizaga kiroldegian. Gaur, 19:00etan, Huescako Avefor taldea izango du aurrean. Laugarren jardunaldian, joan den urrian, jokatu behar zuten partida hau, baina bertan behera laga zuten koronabirus kasuengatik. Atsedean handiegirik gabe, domekan jokatu du Alcortak ligako bigarren partida, 13. jardunaldikoa. Tolosa C.F. eskubaloia taldearen aurka jokatu dute 12:00etatik aurrera. Gaurveke, Sanloko senior emakumezkoen taldeak ere etxean jokatu du asteburu honetan. Lagunak taldearen aurka jokatu dute zapatuan, 18:30ean. Hiru partidak publikorik gabe jokatu diren arren, zuzenean emango ditu Sanlok Youtuben (<https://www.youtube.com/c/ElgoibarkoSanlo/videos>).



San Anton Pilota txapelketa bertan behera gelditu da

Lagunak Pilota Eskolak dena prest zuten San Anton Pilota Txapelketa zapatu honetan jokatzeko, jokatzekoak ziren pilotariak ere lotuta zituelako, baina bertan behera laga behar izan dute torneo veteranoa pandemiari aurre egiteko Jaurlaritzak hartu dituen azken neurrien ondorioz. "Arau berriekin eta lehendik indarrean zeudenekin aurten ezingo dugu San Anton Txapelketa antolatu", adierazi dute pilota eskolako arduradunek. Torneoaren 28. edizioa izango zen aurtengoa. Afizionatu mailako pilotaririk onenak pasatu dira Elgoibartik urteotan. Denak ez dira albiste txarrak pilota munduan. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian atzo argitaratutakoaren arabera, "lehiaketa profesionalean eta federatuan murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira". Hala, argitalpen hori oinarri hartuta, Gipuzkoako Euskal Pilota Federazioak kadete eta nagusi mailen arteko txapelketak martxan jartzea erabaki du.



"Ametsen hondartza"

Maialen
Arriola
Arakistain,
12 urte,
Elgoibar



"Pinguino piraten mundua"

Libe
Soto
Orozko,
9 urte,
Elgoibar



Libe.Soto.

LANA.....

Eskaerak

Neska euskalduna LH eta DBH mailako haurrei partikularrak emateko prest.

☎ 687 729 418

Adinekoak zaintzeko prest nago. Titulua eta esperientzia ditut. Elgoibarren bizi naiz

☎ 660 511 781 / 943 742 330 (Elena)

Gauetan pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. Etxeetan garbiketa lanak ere egingo nituzke, orduka. ☎ 690 134 485

Garbiketa lanak nahiz zaintza lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz, eta mendeko pertsonen zaintzarako ziurtagiria daukat.

☎ 626 490 986

Haurrak zainduko nituzke arratsaldeetan. Euskalduna naiz. ☎ 688 624 315

Neska euskalduna eskaintzen da pertsona edadetuak zaintzeko. ☎ 617 571 210

Asteburuan lan egiteko prest nago, pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Etxeko garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia eta titulua ditut. ☎ 631 342 098

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 612 493 913

Baserriko lanak egiteko prest nago. Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko ere bai. ☎ 631 820 135

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 632 238 016

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Gavez ere bai. Mendeko pertsonen zaintzarako Eusko Jaurlaritzaren titulua daukat.

☎ 666 197 831

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Berehala hasteko moduan.

☎ 602 850 826

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka. Euskalduna naiz.

☎ 637 102 725

Eskaerak

Umea goizez eskolara eramateko pertsona bat behar dut. 8:30ak aldera.

☎ 650 095 932

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Urazandin, Kalamua kalean. ☎ 943 531 131

Garaje itxia alokatzen dut Lekuederren.

☎ 660 042 159

ETXEBIZITZAK.....

Alokairuan edo etxe konpartituan bizitzeko pisu baten bila nabil Elgoibarren (heldua eta umea).

☎ 632 139 635

BESTELAKOAK.....

Helduentzako taka-taka salgai. Gutxi erabilia, egoera onean. 90 euro.

☎ 660 511 781 (Elena)



Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 6€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.

IRAGARKIARI ERRETRATUA JARRIZ GERO, 5€ GEHIAGO ORDAINDU BEHAR DIRA.



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Euzko Administrazioalderen Sarakide Kontorbuak

Nire garaje-komunitatean ura xukatzeak ponpa batzuk daude. Jakin nahi nuke material horri dagokion elektrizitatea, mantentze edo edozein matxurari dagozkion gastuak ordaintzea noren ardura den.

Hasiara batean, pentsa liteke garaje-plazen jabeek bakarrik ordaindu behar dituztela, etxebizitzaren jabe izan edo ez, garajeetako ura xukatzeak ponpei dagozkien gastuak, beraiek direlako funtzionamenduaren zuzeneko onuradunak, eta indibidualizatu daitezkeen gastuen kontzeptuan sartuko liriteke. Hala ere, ura xukatzeak ponpek garajeari ez ezik, finkaren gainerako zatia ere ematen diete zerbitzua, eraikinaren sotoa urak hartzea eragozten dutelako. Beraz, garajeari ez ezik, komunitate osoari ere eragiten diote. Izan ere, horrekin higiezinaren estankotasuna bermatzen da, eta betebeharrak hori zuzenean ezartzen zaio komunitate osoari.

Ondorioa: Nahitaezko obrak dira higiezinak eta haren zerbitzu eta instalazio komunak behar bezala mantentzeko eta kontserbatzekoak, segurtasun, bizigarritasun eta irisgarritasun unibertsaleko oinarritzko baldintzak betetzeko beharrezkoak direnak barne. Baita apaindura-baldintzak eta Administrazioak kontserbatzeko legezko betebeharrak ezartzearen ondoriozko beste edozein ere. Kasu horretan, higiezinari behar bezala eusteko beharrezkoak diren gastuak eta eraikinaren sotoa urak hartzea eragozten duen ponpaketa-sistema batean egindako gastua, higiezinari behar bezala eusteko gastu komunak dela hitzartu beharko da. Beraz, eskura ditugun datuen arabera, ezin da gastu indibidualizagarritzat hartu, komunitate osoari eragiten diolako eta, beraz, etxebizitzaren eta garaje-plazaren jabe guztien artean banatu beharko da.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Julen**, eguaztenean 7 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat etxeko denon partez.



Zorionak, **Noa**, urtarrilaren 13an 5 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiko guztion, eta bereziki, zure ahizpa Naiaren eta amonaren partez. Asko maite zaitugu.



Zorionak familiako zaharrenari eta gazteenari hilaren 15ean eta 30ean 87 eta 10 urte beteko dituzuelako.



Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.
Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€.
Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian edo www.barren.eus webgunean



BARREN



943 743 704

688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3 ezk. - 20870 ELGOIBAR



**MATRIKULAZIO
KANPAINA ZABALIK
URTARRILAREN 18TIK
29RA BITARTEAN**



mendaro
ikastola

943756141

EXTRA ASTEA

**SAMSUNG WW90T534DTT/S3
ARROPA GARBIGAILUA**



599 €

- 9 kg-ko karga
- A+++ energi mota
- 1400 r.p.m.
- Txuri kolorekoa

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte

15 BARIKUA

18:00 Odol ateratzeak. Jubilatuen biltokia.

16 ZAPATUA

9:00 Zuhaitzak landatzea. Morkaikok antolatuta, Lurgaia elkartekoen bidez, Aastia inguruan. Santa Klara eta Aizkorri kaleetako bidegurutzean batuko dira. Zena eman behar da aurrez.

SAN ANTON JAIAK

15 BARIKUA

19:00 Antzerki musikala: 'Kutsidazu bidea, Ixabel'. Herriko Antzokian.

16 ZAPATUA

12:00 Zigilu erakusketaren inaugurazioa. Julen Zabaleta eta Koldo Lizarralderi eskainia. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

17 DOMEKA

San Anton Eguna

11:00 Meza nagusia, San Bartolome parrokian.

12:30 San Antonetako kontzertua: Ainara Ortega eta Angel Unzu. Emudafek antolatuta, Herriko Antzokian.

22 BARIKUA

17:00 eta 19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots. Herriko Antzokian.

23 ZAPATUA

11:00 Filatelia elkarteetako Euskal Federazioaren batzarra. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

13:00 Zigilu erakusketako partaide eta laguntzaileei eskerrak emateko ekitaldia. Kultur Etxeko sotoan.

17:00 Zetak taldearen kontzertua, Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Perfumes'

16 zapatua: 19:00
17 domeka: 19:00
18 astelehena: 19:00



'Rocca cambia el mundo'

17 domeka: 16:30

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

15 BARIKUA	16 ZAPATUA	17 DOMEKA	18 ASTELEHENA	19 MARTITZENA	20 EGUAZTENA	21 EGUENA	22 BARIKUA
Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean ---	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauez: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912

ETORKIZUNA ERAIKIZ

Aurre-matrikulazio epea: urtarrilaren 19tik - 29ra.

Bisitak: urtarrilaren 19an 16:30ean (euskaraz) eta urtarrilaren 21ean 16:30ean (gaztelaniaz).

Deitu 943 740 879 zenbakira edo idatzi zuzendaritza@elgoibarhe.net helbidera.



elgoibarko
herri eskola





Eraikitzen:

AB ANTON BILBAO
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio gehiago